

548/2019 Ebazpena, 2019ko uztailaren 22koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Honen bidez, 9. lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak (2011ko aldi baterako kontratazio zerrendetan indarrean daudenak) argitaratzeko agintzen da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediku eta Teknikariak) lanbide-taldeetako bakanteen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Osakidetza Zuzendari Nagusiaren azaroaren 28ko 4235/2008 Ebazpenaren bidez (232. EHAA, 2008ko abenduaren 3koa), 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintza arautuko zuten oinarri orokorrak onartu ziren, Osakidetza lotura estatutario finkoa eskuratzeko.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren bitartez (EHAA, 106. zk, 2011ko ekainaren 6koa), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio zerrendak, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik datozenak, egin eta kudeatzea arautzen da.

Maiatzaren 8ko 312/2019 Ebazpenaren bidez, 9. lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin behineko zerrendak argitaratu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediku eta Teknikariak) eta B.1 (Diplomadun Sanitarioak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

Behin behineko zerrenda horien aurka ezarritako erreklamazioak aztertu ondoren,

EBATZI DUT

Lehenengoa.- 9. lehentasuneko aldi baterako kontrataziorako behin betiko zerrendak (2011ko aldi baterako kontratazio zerrendetan indarrean daudenak) Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-gunean argitaratzeko agintzea, modalitate hauei dagokienez: A.1 (Fakultatibo Mediko eta Teknikoak) lanbide-taldeetako lanpostu hutsen zerrenda eta ordezkapenen zerrenda.

2019ko uztailaren 23an indarrean sartuko dira zerrenda hauek.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 22an.



María Pilar Uriarte Brizuela
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

Iz.: María Pilar Uriarte Brizuela

OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD